



2010/11/29ko prentsa-oharra


ETXEGINTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA (EDYVI) 2010eko 3.
hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeko aurreikuspenak gora egin du 2010eko hirugarren hiruhilekoan iazko hiruhileko berarekin alderatuta.

2.031 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da, iazko hirugarren hiruhilekoan baino 743 gehiago (% 57,7 gehiago), eta aurreko hiruhilekoan baino 194 gutxiago (hau da, % 8,7 gutxiago).

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2010eko hirugarren hiruhilekoan aurreikusi denez, oin berriko 2.031 etxebizitza eraikiko dira, iazko denboraldi berean baino % 57,7 gehiago, eta 2010eko bigarren hiruhilekoan baino % 8,7 gutxiago.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2010.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



Gipuzkoan (1.017 etxebizitza) Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusita dagoen oin berriko etxebizitzaren % 50,1 eraikiko dira. 2009ko hiruhileko berean aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren bikoitza baino gehiago dira (% 109,3) eta aurreko hiruhilekoari dagozkionak baino % 13,1 gehiago.

Atzetik Bizkaia dator 516 etxebizitzarekin, hau da, hirugarren hiruhilekoan aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren guztizkoaren % 25,4arekin. Lurralde honetan eman da etxebizitza-aurreikuspen handiena iazko hiruhileko berarekin alderatuta (% 1.257, 9 gehiago), hiruhileko hartan emandako ezohiko emaitza dela-eta, baina aurreko hiruhilekoan baino % 3,6 etxebizitza gutxiago, hain zuzen ere.

Bestalde, Araban oin berriko 498 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da (guztizkoaren % 24,5), aurreko hiruhilekoan baino % 37,0 gutxiago, eta 2009ko bigarren hiruhilekoan baino % 34,8 gutxiago.

Arabako Lautadan Araban aurreikusita dauden oin berriko etxebizitzaren % 87,3 daude, Donostialdean Gipuzkoako % 58,8 eta Bilbo Handian Bizkaiko % 54,8.

Aurreikuspenen arabera, Gasteizen oin berriko 421 etxebizitza eraikiko dira, hau da, Autonomia Erkidego osoko % 20,7 eta Arabako % 84,5; jarraian Pasaia dago, 212 etxebizitzarekin -Autonomia Erkidegoko % 10,4—, baita Hernani ere, 189 etxebizitzarekin —% 9,3—. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, soilik 65etan —3tik batean pasatxo— aurreikusten zen etxebizitza berriak eraikiko zirela.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 140 birgaitzeak 2009ko hiruhileko berean aurreikusitako 125 birgaitzeak baino % 12 gehiago izan dira; aldiz, aurtengo bigarren hiruhilekoan izandakoak baino % 24,3 gutxiago dira.

EAEko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua % 35,1 igo da 2010eko hirugarren hiruhilekoan, betiere kopuru hori 2009ko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoera-adierazle gisa erabili ohi da) 674ra igo zen 2010eko hirugarren hiruhilekoan. Hau da, duela urte bete baino % 35,1 gehiago, baina aurreko hiruhilekoan baino % 9 gutxiago.

Hamarretik zazpi baino gehiago —% 71,7— birgaitze-lizentziak dira, oin berriko eraikinak % 26,4 dira eta % 1,9 bereziki eraisteko lizentziak dira —guztira 13—.

Bizkaian obra handiko 290 lizentzia daude, Arabako 263 lizentzien eta Gipuzkoako 121 lizentzien gainetik. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak lizentzia guztien % 39,7 dira, eta Bizkaiaren eta Arabaren kasuan, aldiz, % 25,9 eta % 20,9 dira, hurrenez hurren.

Bizkaian lizentzien guztizkoa % 53,4 igo da 2009ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, baina % 18,1 gutxiago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Araban obra handiko lizentzien kopurua % 23,5 igo da iazko hiruhileko berarekin alderatuta, eta % 2,7 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Azkenik, Gipuzkoan



lizentzien kopurua % 24,7 igo da 2009ko hirugarren hiruhilekotik 2010eko hirugarren hiruhilekora, eta aurreko hiruhilekoan emandakoekin alderatuta, % 7,6 gutxiago.

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien % 75,7. Ehuneko hori Bilbo Handiak Bizkaia-erakiko duen ehunekotik -% 66,2- hurbil dago; aitzitik, Donostialdean Gipuzkoako lizentzia guztien % 39,8 eman dira.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2010ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	674	100,0	-67	-9,0	175	35,1
	Oin berriko eraikinak	178	26,4	-7	-3,8	52	41,3
	Birgaitzeak	483	71,7	-58	-10,7	123	34,2
	Eraispenak	13	1,9	-2	-13,3	0	0,0
Araba	Guztira	263	100,0	7	2,7	50	23,5
	Oin berriko eraikinak	55	20,9	-6	-9,8	2	3,8
	Birgaitzeak	203	77,2	12	6,3	47	30,1
	Eraispenak	5	1,9	1	25,0	1	25,0
Bizkaia	Guztira	290	100,0	-64	-18,1	101	53,4
	Oin berriko eraikinak	75	25,9	-5	-6,3	39	108,3
	Birgaitzeak	210	72,4	-61	-22,5	58	38,2
	Eraispenak	5	1,7	2	66,7	4	400,0
Gipuzkoa	Guztira	121	100,0	-10	-7,6	24	24,7
	Oin berriko eraikinak	48	39,7	4	9,1	11	29,7
	Birgaitzeak	70	57,9	-9	-11,4	18	34,6
	Eraispenak	3	2,5	-5	-62,5	-5	-62,5
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	2.171	100,0	-239	-9,9	758	53,6
	Oin berriko eraikinak	2.031	93,6	-194	-8,7	743	57,7
	Birgaitzeak	140	6,4	-45	-24,3	15	12,0
Araba	Guztira	515	100,0	-318	-38,2	-278	-35,1
	Oin berriko eraikinak	498	96,7	-293	-37,0	-266	-34,8
	Birgaitzeak	17	3,3	-25	-59,5	-12	-41,4
Bizkaia	Guztira	575	100,0	-27	-4,5	471	452,9
	Oin berriko eraikinak	516	89,7	-19	-3,6	478	1257,9
	Birgaitzeak	59	10,3	-8	-11,9	-7	-10,6
Gipuzkoa	Guztira	1.081	100,0	106	10,9	565	109,5
	Oin berriko eraikinak	1.017	94,1	118	13,1	531	109,3
	Birgaitzeak	64	5,9	-12	-15,8	34	113,3

Fuente: Dpto. Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Estadística de Edificación y Vivienda



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Para más información:

Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Dirección de Servicios. Órgano Estadístico Específico

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Persona de contacto: Edurne Domingorena

Tlf: +34-945-01 97 12 Fax: +34-945-01 64 07

Notas de prensa en Internet: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>

WEB: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>